

1. IDAZLANA (10 PUNTU)

PLIKA ZENBAKIA

Honako gai honetaz **200 hitzeko gutuna** idatzi behar duzu.

Lau urte dira zure bikotea eta biak hasi zinetela Txinako haur bat adoptatzeko tramiteak betetzen. Bitartekari mota guztiak ordaindu ondoren eta anitz aldiz etsitzeko zorian egon eta gero, duela hilabete bat zuen abokatuak erran zizuen dena prest zegoela zuen haurra, azkenean, ekartzeko. Zuen itxaronaldi itxuraz amaigabea bukatzeaz zegoen, beraz. Atzo, ordea, abokatuak deitu zizuen errateko Txinako arduradunek, azalpen gehiago eman gabe, iritzia aldatu eta zuen eskaera atzera botatzea erabakia zutela.

Lau urte luze hauetan, Mikel zuen lagunaren sostengua izan duzue beti. Idatz iezaiozu orain gutun bat kontatzeko nola sentitzen zaren. Kontuan har ezazu Mikelek baduela gertatutakoaren berri eta, beraz, gutunaren helburua ez dela prozesu guztia berriro ere kontatzea.

2. IDAZLANA (10 PUNTU)

Honako gai honetaz **300 hitzeko iritzi artikulua** idatzi behar duzu.

Heldu den hilabetean, Rammstein musika talde alemanak kontzertu bat emanen du Donostian. Musika gogorra eta iluna egiten dute. Haien letrak (pornografikotzat jotzen dituzte zenbaitek, emakumeendako iraingarritzat bertze batzuek) desagokiak direlakoan, zenbait taldek kontzertuaren kontrako boikota egiteko deia egin dute. Bertze zenbaitek, ordea, zalantzan jartzen dute taldeari leporatzen zaiona, eta, edonola ere, adierazpen askatasuna aipatzen dute boikotarekin bat ez egiteko irizpide.

Entzun! izeneko musika aldizkaritik gaia komenta dezazula eskatu dizute. Idatz ezazu, beraz, gai horri buruzko iritzi artikulua bat.